

19/03 IRIZPENA

Nélida Zaitegi, lehendakaria
Xabier Aizpurua
Josean Bueno
Ainara Ibañez
M^a Teresa Ojanguren
Begoña Pedrosa
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2019ko urtarrilaren 30eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek gehiengoz eman du ondoko irizpena: **EAEko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen duen Agindua bosgarren aldiz aldatzeko proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduak onartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko herri-ikastetxeetan egon daitezkeen aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko araudia. Harrezkero, agindu horri hainbat aldaketa egin zaizkio beste hainbat agindutan, besteak beste, hauetan: 2013ko apirilaren 18koa, 2014ko apirilaren 16koa, 2015eko ekainaren 8koa eta 2017ko apirilaren 11koa.

II. EDUKIA

Agindu proiektuak 9 artikulua dauzka, 2012ko abuztuaren 27ko aginduari beste hainbeste aldaketa edo gehikuntza egiten dizkietenak, eta baita ere xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat.

1. artikulua aldatu egiten du "Hautagaien zerrendetan sartzeko eskakizun espezifikoa" izeneko 8. artikulua 3. atala, eta ezabatu egiten du masterraren espezialitate zehatz bat izateko betebeharra. Ondorioz, 2. artikulua Aginduaren 10. artikuluko bosgarren paragrafoa ezabatzen du eta 3. artikulua 11. artikuluko hirugarren paragrafoa aldatzen du.

4. artikulua aldatu egiten du “Merezimenduak” izeneko 13. artikulua hiru guturaren atala, azken faktore bat gehituz berdinketarako hausteko: hautaketa-prozesuak gainditzea.

5. artikulua aldatu egiten du “Zerrendak eratzeko eta zerrendak zabaltzeko deialdi orokorrak” izeneko 14. artikulua 4. atala, eta aurreikusten du zerrendak zabalik gelditu daitezkeela, mugagabeki, detektatutako premien arabera; gainera, zehaztasun gehiago erantsi dira prozedurari buruz. 6. artikulua 7. atal berri bat gehitzen dio 17. artikuluari, eta aurreikusten du zerrendak zabalik egongo direla, mugagabeki edo beharrezkotzat jotzen den denboran, detektatutako premien arabera.

7. artikulua aldatu egiten du Bigarren Azken Xedapena eta eskumena ematen dio Langileen Kudeaketako Zuzendaritzari titulazio berriak sartzeko III. eranskinean edo lehendik daudenak aldatzeko.

8. artikulua aldatu egiten du “Merezimenduen baremoa” izeneko I. Eranskina.

9. artikulua aldatu egiten du “Titulazio eta espezialitateen taulak” izeneko III. Eranskina. Xedapen gehigarri bakarrak dio zerrendetan sartuta zeuden hautagaiek zerrenden barruan jarraituko dutela arau berria indarrean sartzen denean. Xedapen iragankorrak dio ikasturte honetan oraindik ezinbestekoa izango dela Masterraren espezialitate zehatz bat izatea prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa akreditatzeko.

Azken Xedapenean esaten da noiz sartuko den indarrean.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Euskadiko Eskola Kontseiluak abuztuaren 27ko Aginduaren eta atzetik etorri diren aldaketa guztien irizpenak egin ditu (13/02; 14/02; 15/06 eta 17/01 irizpenak). Oraingoan, aldaketa garrantzitsuenak honako hauei buruzkoak dira:

- masterraren espezialitate zehatz bat izateko betebeharra ezabatzea;
- zerrendak mugagabeki irekitzea;
- oposizio-fasea gainditzeagatik lortutako puntuazioa merezimenduen baremoan sartzeko eta kontuan hartzea berdinketarako hausteko.
- Merezimenduen baremoan sartzeko Haurreskoletako hezitzaile bezala bildutako lan-esperientzia.

Lehenik eta behin, eta aurreko irizpenean adierazi genuen bezala, uste dugu egokiago izango zatekeela Agindu berri bat idaztea eta bertan jasotzea arauari orain

arte eginiko aldaketa guztiak (bost dagoeneko), denak ahalik eta modu argienez adierazteko.

Nahiz eta ez den espezifikoki jorratzen Agindu-proiektu honetan –ez baitu aldatzen abuztuaren 27ko Aginduaren IV. kapitulua-, **Kontseiluak uste du sarrera-prozedura aldatu behar dela, zerrendetara sartzeko beharrezkoa izan dadin irakaskuntza-gaitasunari buruzko probak egitea, administrazio beste zerbitzu batzuetan gertatzen den bezala: Osakidetzan, administrazio orokorrean, foru aldundietan, udaletan, e.a.**

Kontseilua poztu da jakitean, azkenik, kontuan hartu eta baloratuko dela nork gainditu duen oposizio-fasea; horrez gain, eta LEPearen parte hartu izana balioan jarri nahi bada, aldaketa hauek proposatzen ditu, betiere 19/02 Irizpenean enplegu-eskaintzari buruz planteatutako proposamenak kontuan hartzen badira:

Espediente akademikoarekin egiten den bezala, puntuazio handiagoa ematea lortutako notaren arabera.

Oposizioa gainditu dutenak zerrendetako lehen postuetan jartzea, notaren eta beste merezimendu batzuen arabera.

Bestalde, 4. artikulua berdinketak hausteko faktoreen baremoan azken elementu gisa sartzeko hautaketa-prozesuak gainditzea. Badakigu ez daukala garrantzi handirik, berdinketa kasuetan bakarrik aplikatuko delako, baina **proposatzen dugu kontuan har dadila lehen elementu gisa.**

Bestalde, aurreko irizpenetan Kontseiluak hainbat aldiz esan du badaudela kontuan hartu beharko liratekeen beste hezkuntza-jarduera batzuk, hala nola, maisu-maistra titulaziorik behar ez duten mailako hezkuntza arloko esperientzia (adibidez, Haur Hezkuntzako 1. ziklokoa).

Horregatik, positiboa iruditzen zaigu kontzeptu hori baremoan sartu izana eta uste dugu, orobat, kontuan hartu beharko litzatekeela udal esparruko beste haur-eskola batzuetan edo behar bezala akreditatutako haur-eskola pribatuetan izandako esperientzia.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2019ko urtarrilaren 30a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco

Ikus-Onetsia
LEHENDAKARIA

Sin.: Nélida Zaitegi

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA